

32E/2026 Foru Agindua, apirilaren 14koa, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak emana, Agerraldia Elkartearekiko hitzarmena onartzeko, dirulaguntza bat emateko eta haren gastua baimentzeko, 2026an *Jolasteka* egitasmoa garatzeko.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-4952-2026-000000**

UNIDADE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua  
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua  
Euskara Sustatzeko Atala  
Tfnoa.: 848 426054  
Helbidea: Paulino Caballero 13. 31002 - Iruña  
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 17.2.a) artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean eman ahal izanen dira, eta lortu nahi den xedea eta onuradun jakin baten aldeko kontsignazioa adierazi beharko dira.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 1.2 artikuluan ezartzen dira haren funtsezko helburuak ezagutza, erabilera, berreskurapen, garapen, sustapen eta irakaskuntzari dagokienez, borondatezkotasun, mailakotasun eta errespetu printzipioen arabera, eta Nafarroako euskararen errealitate soziolinguistikoaren arabera.

Bestetik, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako organismoari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertzeko eta erabiltzeko sentsibilizazio programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin aritzea.

Nafarroako Parlamentuak, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 16/2025 Foru Legearen bidez, "Agerraldia Elkartearekiko hitzarmena, Nafarroako Erdialderako eta Hegoalderako euskarazko aisialdi-proiektua finantzatzeko" izeneko B30002 B3200 4819 334115 partida izenduna onetsi zuen 2026an *Jolasteka* deitzen den egitasmoa garatzeko zeina Nafarroako Erdialdeko eta Hegoaldeko hurrei zuzendua dagoen aisialdian, hau da, eskolatik kanpo euskara erabiltzeko. Partida 50.000 euroekin hornitua dago.



Espedientean Euskarabidea - Euskara Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen txosten-proposamena, zuzendari-kudeatzailearen onespena duena, txosten juridikoa eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu-hartzaitzaren adostasuna jasota daude.

Horrenbestez, eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuan emandako eskudantziak erabiliz eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearekin bat,

#### **AGINDU DUT:**

1. Onartzea Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Agerraldia Elkartearen arteko hitzarmena, 2026an *Jolasteka* deitzen den egitasmoa garatzeko Nafarroako Foru Komunitatean. Hitzarmenak diru laguntzaren oinarriak arautzen ditu Foru Agindu honen I. eranskinean jasotzen direnak.
2. Agerraldia Elkarteari (IFZ G71383434) 50.000 euroko dirulaguntza bat emateko gastua baimentzea eta dirulaguntza esleitzea. Gastu hori egingen da 2026ko gastuen aurrekontuko B30002 B3200 4819 334115 "Agerraldia Elkartearikiko hitzarmena, Nafarroako Erdialderako eta Hegoalderako euskarazko aisialdi-proiektua finantzatzeko" partidaren kargura.
3. Foru Agindu hau Agerraldia Elkarteari jakinaraztea, eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-hartzaitza Delegatura; aipatutako departamenduko Idazkaritza Tekniko Nagusira, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera, bai eta Nafarroako Gobernuen Dirulaguntzen datu-basean inskribatzea, behar diren ondorioak izan ditzan.
4. Foru Agindu honen eta bere eranskinaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2026ko apirilaren 14an

MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO KONTSEILARIA



Ana Olló Hualde



CSV: **613EDC23E42BEBB4**

Pág.: 3/6

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-04-14 11:39:55

EX.03.0009 Rev.: 1

I. ERANSKINA / ANEXO I

**EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA AGERRALDIA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA 2026. URTEAN JOLASTEKA EGITASMOA GARATZEKO**

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA - INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y ASOCIACIÓN AGERRALDIA PARA DESARROLLAR EL PROYECTO JOLASTEKA DURANTE EL AÑO 2026**

**BILDU DIRA**

**REUNIDAS**

Alde batetik, Ana Olo Hualde andrea, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilaria, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz.

De una parte, D.<sup>a</sup> Ana Olo Hualde, Consejera del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra, en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto Foral 239/2023, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra.

Bestetik, Agerraldia Elkarte, egoitza San Frantzisko kalean 11, behea (31600, Burlata), eta IFZ: G71383434 duena; eta haren izenean eta ordezkartzan, Ibai Sueskun Gonzalez, NAN 44627064A duena eta Agerraldia Elkartearen kidea dena. Erakundearen estatutuetan ezarritakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalorde nahikoa du.

De otra parte, Asociación Agerraldia, con sede en calle San Francisco 11, bajo (31600, Burlada) y NIF G71383434, y en su nombre y representación, Ibai Sueskun González, DNI 44627064A, miembro de Asociación Agerraldia, con poderes suficientes para la celebración de este acto en virtud de lo establecido en los estatutos de la asociación.

Parte-hartzaileek, ordezkari gisa eta adostasunez, hitzarmen hau sinatu dute 2026an *Jolasteka* proiektua finantzatzeko, Nafarroako Erdialdean eta Hegoaldean aisialdiko euskarazko jarduerak eskaintzen dituen.

Las personas intervinientes, en la representación que ostentan y de mutuo acuerdo, formalizan el presente convenio para la financiación en 2026 de *Jolasteka*, un proyecto de ocio en euskera que se desarrollará en la Zona Media y Sur de Navarra.

**A) XEDEA**

**A) OBJETO**

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Agerraldia Elkartearen arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea, 2026. urtean *Jolasteka* proiektua Nafarroako Erdialdean eta Hegoaldean gauzatzeko asmoz.

El presente convenio tiene por objeto establecer las bases generales de la colaboración entre Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera y Asociación Agerraldia, con el fin de posibilitar el desarrollo del proyecto *Jolasteka* durante 2026 en la Zona Media y Sur de la Comunidad Foral de Navarra.

Agerraldia Elkarte 2019an sortu zen, euskaltzale talde baten hausnarketa-prozesu baten ondoren, *Ager Vasconum* eremuan (Garesetik Cortesera eta Zangotzatik Vianara

Asociación Agerraldia nace en 2019 tras un proceso de reflexión por parte de un grupo de personas interesadas en la difusión y el impulso del euskera en la zona de Navarra

hitzen dena) euskararen hedapenaren eta

conocida como *Ager Vasconum*, que se

agertzen duen berriaren erantzuna emanez

extiende desde Puente la Reina a Cortes y

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

desde Sangüesa a Viana.

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-04-14 11:39:55



CSV: 613EDC23E42BEBB4

Pág.: 4/6

EX.03.0009 Rev.: 1

|  |   |
|--|---|
| MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO DEPARTAMENTUA / CONSEJERA DEL DEPARTAMENTO MEMORIA Y CONVIVENCIA, ACCIÓN EXTERIOR Y EUSKARA | AGERRALDIA ELKARTEAREN IZENEAN / EN REPRESENTACIÓN DE ASOCIACIÓN AGERRALDIA |
| Ana Olo Hualde   | Ibai Sueskun González   |



**AURREKONTUA 2026 / PRESUPUESTO 2026**

| CONCEPTO  | CANTIDAD      |
|---|---------------|
| <b>1.- GASTOS DE PERSONAL</b>   |               |
| Coordinación: gasto de personal de la directora del proyecto                                  | 17.000        |
| Monitores: gasto de personal de monitores   | 20.000        |
| <b>2.- GASTOS DIRECTOS</b>  |               |
| Gastos de funcionamiento: preparación de programación   | 12.000        |
| <b>3.- GASTOS INDIRECTOS</b>  |               |
| Seguros, asesoría, material para actividades, comunicación y difusión del proyecto, luz, agua | 1.000         |
| <b>Total</b>  | <b>50.000</b> |

| AZALPENA   | DIRU KOPURUA  |
|--|---------------|
| <b>1.- LANGILE GASTUAK</b>   |               |
| Koordinazioa: proiektuko zuzendariaren langile gastuak   | 17.000        |
| Begiraleak: begiraleen langile gastuak   | 20.000        |
| <b>2.- GASTU ZUZENAK</b>   |               |
| Prestaketa: programazioaren prestaketa   | 12.000        |
| <b>3.- ZEHARKAKO GASTUAK</b>   |               |
| Aseguruak, aholkularitza, ekintzearako materiala, proiektuaren komunikazioa eta zabalpena, argindarra, ura | 1.000         |
| <b>Guztira</b>   | <b>50.000</b> |

**GARDENTASUNA BETEBEHARRA / OBLIGACIÓN DE TRANSPARENCIA**

[Gardentasuna betebeharra](#) / [Obligación de transparencia](#)

[Gardentasun betebeharra ez dutenek bete beharreko ziurtagiria aurkezteko](#) / [Presentación de la declaración de no estar sujeto a la obligación de transparencia.](#)

